

ENPRESA POLITIKA

TRANSITIA Euskadin aberastasuna eta enplegua sortzea helburu duen eta gure herrian apustu estrategikoak gauzatzea jomugatzat duen sozietatea da. Garraio arloan irtenbideak emanaz gaur egungo gizartearen beharrei erantzutea du xede; horretarako, UNE-EN-ISO 9001, UNE-EN-ISO 14001, UNE-EN-ISO 45001 eta UNE-EN-ISO 39001 araei jarraituz kudeaketa sistema egoki bat ezarri du.

TRANSITIAK garraio sektoreko enpresa liderra izatea gura du, horretarako, arlo honetako zerbitzu publikoen kudeaketaren aldeko apustu garbi eta sendoa egiten du.

TRANSITIAko Zuzendaritza Nagusiak pertsona ororen eta langile guztien segurtasuna bermatzea du lehentasunezko helburutzat, hurrengo premisak kontuak hartuz: lege aplikagarriak eta enpresa berak zehaztutako zenbait betekizun betetzea; enpresaren kudeaketa sistemaren hobekuntza jarraiaren aldeko konpromisoa hartzea, bezeroen eta alde interesdunen gogobetetzea lortzeko asmoz prozesuen eta jardueren betetzea bermatuz; momentu oro, ingurugiroa errespetatzea; eta, trafiko istripuak ekiditea. Helburu horiek lortzeko, enpresak ondorengo konpromisoak hartzen ditu:

- Ingurugiroaren babeserako konpromisoa mantentzea, kutsadura orokorra ekiditeaz gain, batez ere, ibilgailuen isuriak murrizteko ahaleginak egitea.
- Garapen jasangarri baten mesedetan garraio publikoaren aldeko apustua egitea berau erabiltzearen alde eginaz.
- Kalte eta osasunarentzat mingarri diren trafiko eta lan istripuen ondorioak saihestearren, Lan Arriskuen Prebentziorako, Mugikortasunerako eta Bide Segurtasunerako plan bat martxan jartzea. Honez gain, Laneko Osasun eta Segurtasuna eta Bide Segurtasuna etengabe hobetze aldera, akzio eta ekintza egokiak eta neurri zuzentzaileak martxan jartzea arrisku egoerak atzemateko. Esparru honek helburuak zehaztu eta berrikusteko balioko du.
- Desagerraraz daitezkeen arriskuak ezabatzea eta, bestela, arrisku horien eraginpean dauden pertsonentzako arriskuak murriztea, lanarekin lotutako lesioak eta osasun narriadura prebenitzeko lan baldintza seguruak eta osasungarriak eskainita.
- Giza baliabideak gehienera optimizatu, eta hondakinak ahal diren neurrian ezabatu, saihestu, edota murriztu.
- Bezeroen poztasuna hobetu, eta kalitatezko zerbitzu berritzaile bat eskaintzea.
- Balore hauek TRANSITIAko giza zerbitzu osora adierazi eta bere partaideen kontsulta eta parte hartzea lagundu.
- Merkatu berrietan sartzen ahalegindu.

Ondoren zehazturiko helburu eta xedeak lortzeko lanean jardungo dugula azpimarratu:

- Prozesuen eraginkortasuna hobetzea.
- Ezadostasun, istripu, trafiko istripu eta ingurugiro gertakariak murriztea.

Enpresako arduradun nagusia izanik, Lan Arriskuen Prebentzio, Mugikortasun eta Bide Segurtasun planak martxa on batean jartzeko, berau helarazteko eta bere betebeharra adierazteko giza baliabide guztiak ematea hitzematzen dut. Hau lortzeko enpresako langile guztien parte-hartzearekin kontatuko dudala ez dudala zalantzan jartzen gaineratu.

Azkenik, politika hau nahi duenarentzat eskuragarri dagoela esatea besterik ez zait geratzen.

Alberto Almirante Uranga
Gerentea
TRANSITIA, 2019ko iraila